

ELBIRA ZIPITRIAREN URRATSAK



Elbira Zipitria gerraurrean hasi zen euskaraz irakasten eta gerraostean ikastola klandestinoen sarea antolatu zuen.

Oso andereño ezaguna izan zen, aitzindaria. Metodologia xume baina berritzailea zerabilen, eta andereño mordoia prestatu zituen.

Ahotsak.eus proiektuan jasotako testigantzak oinarri hartuta, Donostiako parte zaharreen zehar Zipitria hobeto ezagutzeko hainbat geldigune proposatzen dituen ibilbidea da hau.

Map data: ©2021 Google / Badihardugu Euskara Elkartea



testigantza eta
informazio gehiago
online mapan



Badihardugu
Deba Ibarreko Euskera Alkartia

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazio Nagusia
Ezita Eskubideen eta Orainean
Historikoaren Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos
y Memoria Histórica

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 ZUMAIATIK DONOSTIARA: MUÑOAREN IKASTETXEA

Lekukoa: Jabier Puerta Galdos

Elbira Zipitria Irastoza Zumaian jaio zen 1906ko maiatzaren 28an. Haurra zela, familia osoa Donostiara joan zen bizitzera eta 1926an, 20 urte zituela, Magisteritzako ikasketak amaitu eta Koruko Andre Maria ikastetxean lanean hasi zen.



6 GUARDETXEAN JOLASEAN ETA IKASTEN

Lekukoa: Arantza Garaialde Maiztegi

Elbira Zipitriak askotan ikastolatik atera eta umeak gaztelura eramaten zituen, bertan naturarekin loturikoak ikas zituzten, beti ere jolas bidez. Guardetxean "Etxe poxpola" abestia abesten zuten.



2 DONOSTIAKO GERRAURREKO IKASTETXEA

Lekukoa: Miren Egaña Goya

Mirenen amak irakasle-ikasketak egin ostean, gerra aurretik Etxaide kaleko ikastolan egin zuen lan. EAJ-PNVren ikastola zen. Alde Zaharrean Muñoaren ikastola zegoen, 1908-1910 inguruan zabaldu zuten eta Elbira Zipitria ere bertan aritu zen irakasle.



7 BEGIRATOKIKO BALUARTEAN KANTUAN

Lekukoa: Arantza Garaialde Maiztegi

Gaztelura igotzen zirenean, Elbirak eta ikasleek geldialdia egiten zuten begiratokiko baluarteko tunela pasatzerakoan. Bertan, "Itsasoa laino dago" abesten zuten.



3 ABERTZALE SUTSUA

Lekukoa: Jabier Amunarriz Andonegi

Elbira jeltzalea zen eta askotan Boulevarrean zegoen batzokian egoten zen. Militante gisa aritu zen Emakume Abertzale Batzuan eta mitinak ere ematen zituen.



8 IKASTOLEN ETA EUSKARA BATUAREN KONTRA

Lekukoa: Jokin Muxika Lasa

Ikastolak legeztatzen hasi zirenean, Orixe ikastola sortu zen (1968) Santa Maria elizako ganbaran. Elbira bertan lanean ibili zen baina denbora gutxian. Oso tradizionala zen eta ez zuen begi onez ikusi ikastola berrien martxa.



4 GERRA ZIBILA ETA EXILIOA

Lekukoa: Ramon Labaien Sansinenea

Gerratik ihesi, Zipitriak Iparraldera ihes egin zuen. Saran, Antonio Maria Labaien idazle eta politikariaren familiarekin bizi izan zen. Errefuxiatuen familietako umeekin taldea osatu zuen eta eskolak ematen aritu zen.



9 AZKEN URTEAK ETA HERIOTZA

Lekukoa: Arantza Garaialde Maiztegi

Bere bizitzako azken urteetan, bere baitara bildu zen, suminduta eta triste. Bermeon dago lurperatuta, berak horrela eskatu zuelako. Bere omenez, Andereño Elbira Zipitria kalea dago Donostiako alde zaharrean eta eraikin bat lbaetan.



5 IKASTOLA KLANDESTINOA GERRATIK BUELTAN

Lekukoa: Arantxa Gurmendi Olabiaga

Gerratik bueltatu zenean, ikastola klandestinoa sortu zuen bere etxean, Fermin Kalbeton kaleko 26. zenbakiko 2. solairuan. Hamar ikasleko taldeak zituen eta hezkuntzako metodologia berezia erabili zuen.




testigantzak entzun 